

Mintegien oroit-idazkia

Andalucia

Aragón

Asturias

Canarias

Catalunya

C. Valenciana

Euskadi

Extremadura

Galicia

Madrid

"Gure


elkartek berritu behar ditugu?"

Elkartze-mugimenduari barrutik so eginez

EUSKAL HERRIA

Bilbon, irailaren 28 eta 29an

Donostian, urriaren 26 eta 27an



Esplai Fundazioaren (Euskal Herrian EDEX honen zati da) oinarrizko zereginetako bat Elkartze-garapena sustatzea da. Horregatik, fundazio honek sektore hau sendotzeko ekimen-mordoa-ri ekin dio; horra hor, besteak beste: honako mintegi hauek antolatzea, elkarte-kudeaketarako tresnak (Elkarteentzako Koaderno Praktikoak) hedatzea edo Interneten Gizarte Ekintzako GKE-en eta Boluntarioen Alegiazko Eztabaida-leku Iberoamerikarra egitea.

"Gure elkarteak berrituko beharko ote ditugu?" izeneko mintegiak EDEX-Fundación Esplai delakoak antolatuz zituen, Eusko Jaurlaritza eta Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioaren laguntzarekin, hain zuzen ere, elkarte-autodiagnostikoari buruzko 12 mintegitako zikloaren barruan. Mintegi hauek Espainiar Estatuko 10 Autonomia Erkidegotan egiten ari dira, elkarte txiki eta ertainetako 300 buruzagi eta kide ekintzaile inguruk parte hartzen dutela.

Aurten, Boluntarioen Nazioarteko Urtean, garrantzi handiko azterlan eta ikerlanei ekin zaie, Elkartearen eta Boluntarioen errealitatea hobeto uler dadin. Esplai Fundazioan elkartearen egoerari buruz elkarteetako jardule nagusiek, hots, buruzagiek eta kide ekintzaileek, benetan pentsatzen eta esaten dutena jakitea nahitaezkoa dela uste dugu. Eta ez bakarrik haien hitza ezinbestekoa delako; hausnarketa nahiz azterketa, taldekoa ere izan behar delako, ahalmenak elkarraraztearen eta azterlanean antzemandako beharrei erantzuten laguntzen duten sinergiak sorraraztearen.

Honako oroit-idazki honek Euskal Herrian -Bilbon eta Donostian- Elkartze-ehunaren egungo egoerari buruzko eta honen

beharrei erantzuteko moduari buruzko mintegietan 40 partaideek adierazitako iritziak jasotzen ditu.

Iritzi hauek ahalik zehatzen transkribatzen saiatu gara, itxurazko desakordioak eta kontraesanak errespetatuz, Sektorean dauden iritzi desberdinak eta ageriko ooren "joerak" adierazten dituztenak, hain zuzen. Halaber, Bilbon jasotako iritziak Donostian jasotakoekin batu ditugu, galdera bereberei erantzunez, gehienetan bat baitatoz.

Honako hauek ez dira Elkartze-sektorean dauden iritzi guztiak; askoz iritzi gehiago dago, eta, oroit-idazki honek, beraz, ez du "estatistika" egiteko edo totalizatzeko asmorik. Baina, hemen aurkezten ditugun iritziek balio bikoitza dute: alde batetik, elkarte txiki eta ertain askok, bere hitzetan pentsatzen eta esaten dutena jakinarazten digute, eta bestetik, galdetzen digute; erantzunarazten digute, iritzi berriak ematera bultzatzen gaituzte; eta honela, elkartearen errealitatearen azterketa sakontzen eta diagnostikoa osatzen dugu.

Hortaz, oroit-idazki honek elkarte berrietan ideia berriak sorraraztea du helburu; ideia hauek, azkenean agertzen den galde-ara-sorta erabiliz, kolektiboaren hausnarketa eta eztabaidan komunikatu eta gehitu ahal izateko.

Euskal herriko elkartze-ehunaren sendotasunak eta ahultasunak.

Mintegietan parte hartu zutenei beren elkarteen errealitate zehatzean pentsatzea eskatu genien, eta baita haien herrietan diharduten elkarteen errealitatean edo koordinadora, plataforma eta federazioetan harremanak dituzten elkarteen errealitate zehatzean ere. Galdetu genien zeintzuk ziren ezagutzen zituzten elkarteen "sendotasun" eta "ahultasun" ohikoenak. Helburua, beste "jarduleen" (Administrazioak, enpresa pribatuak, etab.) zeregina aztertzea baina, "barrutiko" gogoeta egitea zen, elkarteei buruzkoa elkarteen barrutik egindakoa -aurrekoa mintegien beste atal baten egin genuen eta, Oroit-idazki honetan aurrerago adieraziko den gisa-. Horra hor partaideen artean adostasun gehien izan zuten erantzunak:



Elkartze-mugimenduaren sendotasunak

- ▶ Sendotasun nagusia elkarteak osatzen eta bizirik iraunarazten dituzten pertsonak beraiek dira. Haien gogo bizia, gizarte ardura, diharduten gizarte arazoekiko kontzientziarazioa, errealitatea hobetzeko eta aldatzeko duten konpromisoa.
- ▶ Elkarteen heterogenotasuna, aniztasuna; haien ekintza-arloena; haien antolaketa-moduena, haien lan egiteko moduena. Elkartze-mugimendua era askotakoa eta anitza da, baina honek ez du esan nahi askotan ez dela ororen helburuetan bat egin eta elkarlanean aritu behar.
- ▶ Elkarteak -puntu honetan ahultasunak badituzte ere- hierarkia handirik ez duten erakundeak dira oraindik; beste egitura batzuk (publiko-

ak, pribatuak, etab.) baino horizontalagoak, malguagoak dira antolaketari dagokionez; aldaketekiko moldagarriagoak.

- ▶ Elkarte-kopurua handituz doa jarduteko arlo guztietan. Egoera hau gizarteak arazo hauekiko duen jakingura eta hiritarrek duten sentikortasuna handitu direlako ezaugarria da. Elkartze-mugimendua gero eta handiagoa da.
- ▶ Puntu honetan ageriko ahultasunak egon arren, elkarte askoren arteko lankidetzak handituz doa, elkartze-sektorean talde-lana eta sare-lana handituz doa, sektoreak lan egiteko modua hauek duten garrantziaz gero eta jakitunago baita.
- ▶ Azken urteotan elkarte askotan arduraldi "profesionalizatua" asko handitu egin da (proportzionalki, beharrak oso handiak izaten jarraitzen badute ere). Kide "liberatu" edo profesionalizatu gehiago dago. Egoera honek, beste arrisku batzuekin batera, arduraldian jarraipen gehiago eta zereginak nahiz egitarauak garatzeko prestaketa tekniko handiagoa dakar berekin.
- ▶ Altruismoa, elkartasuna, elkarrizketa, elkarteen "baloreak" -gure egungo gizartearen inguruan- dira funtsezko sendotasunak, behar bezala hedatzen eta aprobetxatzen ez ditugunak.
- ▶ Egoera aproposena ez bada ere, eta helburuak lortu ez badira ere, agerikoa da azken urteotan Elkartze-mugimendua hein handi batean heldu eta finkatu egin dela (baliabide materialak, giza baliabideak).

2 **Elkartze-mugimenduaren ahultasunak**

- ▶ Ez dugu estrategia orokorrik. Gure ekimen gehienak puntualak, aringarriak, etenak dira. Ez dugu egitasmo orokorrik, ez lan egiten dugun arazo eta gizarte beharrei ekiteko moduari (estrategikoa) dagokionez, ez geure eredu antolatzaileei dagokienez.
- ▶ Elkarten arteko komunikazioan eta koordinazioan oker handiak daude. Zenbait kasutan aurrerapausoak badaude ere, banaka jarduten jarraitzen dugu, gure ahaleginak koordinatu gabe. Neurritz gaineko sakabanatzea dago oraindik. Elkarten artean lehia dago eta elkarri ekimenak estaltzen diogu.
- ▶ Elkarten eta beste jite bateko erakundeen artean (administrazioak, enpresak, komunikabideak, gizartea oro har...) komunikaziozko arazok daude. Komunikazioa elkarrean gainditu gabeko irakasgai gisa.
- ▶ Gehienok ez dugu geure finantzaketa-iturririk. Herri Administrazioen finantzaketaren gehiegizko beharra dugu (egoera honek dakartzan arrisku eta baldintzekin), honela, gure egitarau eta antolaketetan "arrisku" kontzentrazio handia gertatzen da.
- ▶ Gehienok ez dugu gure egitarauak kudeatzeko zein gure antolaketa garatzeko gaitasun eta iaiotasun metodologikorik. Inprobisazio asko, planifikazio gutxi.
- ▶ Elkarte askok "burujabetasun" arazoak ditu; politikarekin (alderdikoia) gehiegizko loturak, erlijioen hierarki menpekotasuna, etab.
- ▶ Elkarteok, oro har, ez dugu hainbat gauza ezagutzen, besteak beste: administrazio-baliabide asko, erakundeak nola dabilzan, haiekin

harremanak izateko modua, haiek eskaintzen dizkiguten aukerak eta baliabideak... Egoera hau oso muga handia izaten da.

- ▶ Boluntarioen aldakortasuna (asko aldatzen dira eta ez diraute) eta erantzukizunak zein zereginak pertsona gutxik bereganatzeak nahiz ordezkorik ez egoteak kide gogotsuak (elkartek zutik iraunarazten dituztenak) ahitzea eta nekatzea dakar.
- ▶ Elkarte asko ez gara gizarte eta kultur aldaketara moldatzen (gizartea gure elkarteak baino azkarrago aldatuz doa). Elkarte askoren kudeaketan eta antolaketan "modernizatorik" eza eta teknologia berriak gure funtzionamendu eta egitera moldatzeko ezintasuna.

Elkartze-ehuna indartzeko lehentasunezko beharrak

Elkartze-ehunaren "sendotasunak eta ahultasunak" direla-koeti buruzko azterketa kolektiboa partekatu ondoren, haien ustez "lehentasunezko beharrak" (elkartek eta gizarte kolektiboak indartzeko lehenbailehen konpondu beharreko egoerak edo arazoak) zeintzuk ziren adieraz zezaten eskatu genien partaideei.

Horra hor partaideen artean adostasun gehien izan zuten iritziak:

- ▶ Elkarteko kide guztion prestakuntza hobetu beharra dago arlo guztietan (kudeaketa, barneko antolaketa, partaidetza, etab.)
- ▶ Elkarteen funtzionamendu antolatzailea, partaidetza eta barneko kudeaketa hobetu beharra dago.
- ▶ Elkarteen arteko koordinazioa, komunikazioa, lankidetzeta eta sare-lana hobetu beharra dago.



Lehentasunezko beharrak

konpontzeko jarduteko ildoak

Lehentasunezkotzat hartzen zituzten beharrak adierazi ondoren, haien ustez hauek konpontzeko elkarrekin ekin beharreko ildoak zeintzuk ziren galdetu genien partaideei. Horra hor iritzi nabarmenenak:



1 Elkartekide guztion prestakuntza hobetzeko beharra

- ▶ Elkarrekin artean prestakuntza-baliabideak partekatzea, elkarrekin bakoitzaren prestakuntza-baliabideez baliatzea, kostuak merkatzeko eta ahaleginak errentagarri bihurtzeko, elkarrekin artean guztiontzat interesgarri izan daitezkeen gaiei buruzko baterako prestakuntza-egitasmoak egitea.
- ▶ Elkarrekin bakoitzean eta elkarrekin guztietan elkarrekin-prestakuntzari ekiteneko baliabideak, denbora eta ahaleginak erabiltzea. Honi duen garrantzia ematea. Elkarrekin barruan prestakuntza biderkatzen duten profesionalak prestatzea, zeregin honetan bakarrik lan egin dezaten.
- ▶ Gure berariazko gaitasunez baliatuz, elkarrekin artean prestatzea osagarria sustatzea, "hezitzaile" gisa elkarrekin erabiltzea, elkarrekin bakoitzaren jakintzak eta gaitasunak partekatzea.
- ▶ Boluntario nahiz elkarrekin-entzako gutxieneko baldintza "hezigarriak" ezartzea: (urteko?) gutxieneko prestakuntza-orduak, bileretan eta batzarretan parte hartzekoak, etab...
- ▶ Elkarrekin artean beraren egoerari buruzko nor bere burua aztertzea (auto-azterketa), nor bere burua diagnostikatzea (auto-diagnosti-

koa) eta gogoeta kolektiboa bultzatzea Gure antolaketa eta funtzionamendua berraztertzea. Gure elkarrekin artean nor bere burua kritikatzeko (autokritika praktikatzeko).

- ▶ Batez ere elkarrekin artean zuzendariak eta kudeatzaileak "kalitatezko kudeaketan" prestatzea, elkarrekin egitarauak eta funtzionamendu antolatzailearen beraren kalitatea hobetzeko metodo berriak ikasi eta sartuz, horretarako, NTIC direlakoak erabiliz. (Ikusi Funtzionamendu Antolatzaileari dagokion atala).

- ▶ "Bilerakeria" hots, jendea gogaitzen duen bilera eta deialdi asetasuna saihestea. Bileren eraginkortasuna eta egokitzapena asko zaintzea. Komunikatzeko eta kontsultak egiteko beste bide batzuk erabili eta garatzea.



2 Funtzionamendu antolatzailea, partaidetza eta kudeaketa hobetzeko beharra

- ▶ Bestelako eskarmentu antolatzaileak, hurbilen ditugun elkarrekin artean bestelako "eredu antolatzaileak" (bestelako gaikako arloetan, bestelako lurraldeetan...) ezagutzeko benetako ahalegina egitea; ideia eta konponbide antolatzaile onak egiaztatzea, alderatzea, ikastea nahiz eranstea.
- ▶ Teknologia berriez baliatzea, elkarrekin funtzionamendu eta kudeaketa antolatzailean erabiltzeko, zereginak errazteko, elkarrekin artean

komunikazioa eta partaidetza errazteko. Posta elektronikoa gutxienez egunean behin irekitzea (NTIC praktikan sartzen hastea).

▶ Elkartekide bakoitzaren gaitasunak eta mugak ezagutzea. Gure benetako gaitasun eta baliabideak aztertzea. Kide bakoitzaren gaitasunak (osagarritasuna, talde-lana...) ahal den gehien aprobetxatzea. Kide bakoitzaren (ikusi Prestakuntzari dagokion atala) eta antolaketa guztiaren beharrak zein diren jakitea.

▶ Jendeak zuzenean parte har dezan benetako guneak irekitzea. Kideek parte har dezaten aukerak eta formulak biderkatzea.

▶ Jarduera erakargarriagoak egitea, "elkartek plazaratzea", komunikazioa (publizitatea, elkartze-marketina) askoz gehiago zaintzea.

▶ Gure egitasmo eta egitarauen "kalitatea" zaintzea, prestakuntzaren bitartez kudeatzeko metodo bizi eta eraginkoragoak sartzea, horretarako NTIC direlakoak erabiliz (NTIC direlakoetan trebatzea).

▶ Barneko komunikazioa, hau da, kideen arteko komunikazioa, hobetzea. Egungo informazioko eta barneko komunikazioko bideak eta formulak berraztertzea, norabide guztietan. Komunikazioa gure antolaketa behar bezala ibil daitezzen gako da.

▶ Epe ertainera-luzera pentsatzea, norabiderik gabe bat-batean ez jardutea. "Urteko egitarauen" (logika administratiboaren baldintzapean) logika gainditzea. Gure elkarteentzako "Plan Estrategikoak" egitea, epe ertainera gure praktikaren orientabide izango diren helburu antolatzaileak formulatzea.



Elkarteen arteko komunikazioa, koordinazioa eta lankidetzaren sendotzeko beharra, sare-lana

▶ Elkarteen artean baterako egitasmoak garatzea, elkarrekin gauza zehatzak egiteko indarrak eta baliabideak elkartzea. Baterako lanean, praktika zehatzean, koordinatzen ikasten dugu.

▶ Elkarteen artean "langile liberatuak", "teknikari profesionalizatuak", berriak jakintzak dituztenak (kudeatzaileak, hezitzaileak, komunikatzaileak, adituak...) partekatzea, zenbait elkarerentzat probetxugarri direnak, baliabideak errentagarri bihurtzeko (kostuak merkatzeko) eta haien arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzeko.

▶ Koordinazioan uste osoa izatea eta horren alde egitea. Koordinazioa ezin da betiko ordezkariena ez beste inorena den egitekoa izan, antolaketa osoaren konpromisoa izan behar du. Ezinbestekoa da gure antolaketa osoak horren beharra duela sinetsita egotea eta funtziona dezan beharrezko baliabideak jartzea: denbora, ahaleginak, baliabideak, bideak.

▶ Elkarteen kutsadura "alderdikoia" saihestea, honek burujabetasuna eta elkarrenganako konfiantza eragozten baititu, eta elkartze-lankidetzari oztopoak jartzen baitizkio.

▶ Aurreko puntuaren kontraesana izan gabe, elkarteek kontziente izan behar gara gizarte interesdun inguruetan "politika" egiten dugula, salatzen dugula, aldarrikatu eta jarduten dugula, gizarte iritzietan eragina dugula, eta, beraz, herri politiketan eragina izan dezakegula (gure hitzak eta ekintzak koordinatzeko gai bagara behintzat).

- ▶ Elkarteen artean, elkarrekiko aurreiritziak eta aurretiko irudiak gainditzea, hobeto elkar ezagutzea, estereotipoen gainetik. Elkarteen artean konfiantza taxutzea.
- ▶ Oinarrizko jarrera baten alde jokatzeko: elkarriketa irekia, besteei entzutea, gainerako iritzi eta ikuspegiei, antolatzeke eta jarduteko beste modu batzuei irekitzea. Komunikazio eta elkarriketarako guneak ahalbidetzea, honako gogoeta hau iraunaraztea.
- ▶ Koordinazio "probetxugarria" mahaigaineratzea, parte hartzen duten elkarte bakoitzaren probetxurako, elkarte bakoitzari "onura" nabariak ekarriko dizkiona, koordinazio horretan sartzea eta parte hartzea interesgarri bilakatzen duena.
- ▶ Oso gizarte-sare zabalaren zati gara (baita beste jokazaile batzuk eta herri administrazioak beraiek ere). Bestelako jarduleak gure helburuak lortzeko baliabide gisa ikustea. Gure buruak gizarte-sareko jarduleentzako baliabide probetxugarri gisa ikustea.
- ▶ Antzeko elkarteen arteko, gai edo gizarte behar berberetan dihardutenen, lurralde berberetan lan egiten dutenen, baloreak eta lan-metodologia berberak dituztenen arteko bilerak antolatzea, koordinazioa bultzatzea.
- ▶ Aurreko guztia lortzeko lehenengo urratsa urrats bat ematea da.

Gizarte jarduleek

elkartze-garapean duten zeregina baloratzea.

Partaideei "gizarte jarduleek" (herri administrazioak, enpresa pribatuak, komunikabideak, unibertsitateak eta gainerakoak) erakunde solidario eta elkarte-ehunaren indartzean duten zereginari buruz zer uste zuten galdetu genien.

Jasotako iritzia oso desberdinak izan dira, transkripzioak adierazten duenez, elkarte-ehuna anitza delako, sartuta dagoen gizartea bezalako. Hala eta guztiz ere, elkarte gehien artean orokorrean hedatutako "joerak", ulertzeko moduak, igarri daitezke.

Iritzi hauek baliagarri dira, benetan gertatzen ari dena (alderdi baten, "jardule" baten ulertzeko modua besterik ez da) modu "objektiboan" deskribatzen dutelako baino, elkarte askok, egoki edo oker, pentsatzen dutena adierazten dutelako. Ulertzeko modu subjektibo hauek, inolako zalantzarik gabe, haien jarduteko modua eta gainerako jarduleekin harremanak izateko modua baldintzatzen dute.

Horra hor jaso ziren erantzunak:

Enpresa pribatuei dagokienez...

Ez dugu elkar ezagutzen. Elkarteok ez dugu enpresaren mundua ezagutzen, enpresek ez dute elkarteon eta erakunde solidarioen mundua ezagutzen. Ez ditugu elkarren ahalbideak ezagutzen.

▶ Enpresa pribatuek modu hautakor batean laguntzen diete erakundeek, haien interesen arabera eta ez gizarte interesen arabera. Laguntzen dutenean, batez ere publizitateren bila ari dira, eta elkarte txiki eta ertainok ezin gara alor horretan "norgehiagoka" ari.

▶ Enpresetan ez dago erakunde solidarioen, elkarteon baloreekin bat datorren "balore-fondorik". Ez gatzazkie interesatzen.

▶ Enpresa pribatuek arrakasta lortzeko aukera politik izango dituzten ekimenei besterik ez diete laguntzen, etorkizun eta entzute handia izango dutenei, hain zuzen. Gure elkarteon jarduera ez zaie garrantzitsu iruditzen.

Herri Administrazioei dagokienez...

▶ Elkarteoi diru-laguntzak eta lokalak ematen dizkigute; laguntza hau gabe ezin izango genuke egiten dugun gauza asko egin.

▶ Elkarteontzat ezinbestekoak eta baliagarriak diren giza baliabide (teknikariak) eta baliabide materialak dituzte, behar bezain probetxugarri eta eskuragarri ez badira ere.

▶ Elkarteoi ematen diguten laguntza ekonomikoa bakarrik da eta eskasa gainera -azken urteotan handitu dela egia bada ere-, konpondu behar diren gizarte arazo eta beharrei dagokienez.

▶ Elkarte mugimendua zerbitzu-gauzatzaile hutstzat hartzen dute, "gizarte eskulantzat", eta ez politiken egitearen hizketakide eta laguntzailetzat.

▶ Baliabideak esleitzean ez dago gardentasunik. Askotan deialdiak ez daude argi; ez dira herri irizpideak errespetatzen.

▶ Elkarteek diru-laguntzen gehiegizko beharra izan dezaten laguntzen dute eta haien "erritmoak" (urteko ekitaldiak) egitarauak jarrai dezaten oztopo bat dira.

Komunikabideei dagokienez...

- ▶ Ez dituzte elkartegintza eta balore solidarioak sustatzen, solidarioa irrigarri uzten dute, "ikusbizun" bilakatzen dute. Ez dute benetako parte-hartzea eta ardura gizarte kontuetan.
- ▶ Komunikabideek ez dituzte elkarteak aintzat hartzen, ez dituzte baloratzen, ezta beren gizarte zeregin ere.
- ▶ Komunikabideek elkarte-mugimenduari buruz ematen duten informazioa puntuala, ez-oso eta politizatua izaten da. Ez da informazio objektiboa, haien interes partikularren arabera baizik.
- ▶ Komunikabideek gizarte gaiez sentsazionalismo eta manipulazioz aritzen dira.
- ▶ Iritzia emateko askatasuna eta iritzien aniztasuna sustatu baino, pentsaera bakarra sustatzen dute.

Unibertsitateari, Heziketa-sistemari dagokienez...

- ▶ Balore hierarkizatuak eta zorrotzak errepikatzen dituzte, partaidetza estuasunean jartzen duen indibidualismoa sustatzen dute. Ez dute "partaidetzan hezten", ezta lankidetzan eta talde-lanean ere.
- ▶ Ikastegiei ez zaie elkarte-baliabide gisa probetxurik ateratzen. Elkarteei ez zaie heziketa-baliabide gisa probetxurik ateratzen. Ez diote elkarri probetxurik ateratzen.
- ▶ Unibertsitatearen gehiegizko espezializazioa. Honek errealitatearen ikuspegi orokorra eta konplexua izateari trabak jartzen dizkio.
- ▶ Unibertsitateak baditu zenbait arlotan elkarteei baliagarri gerta dakizkien adituak (benetan lagundu eta parte hartzen dutenak gutxi badira ere).

▶ Unibertsitateak elkarteei eta elkarte-ehunari profesionalak ematen (edo eman behar) dizkie. Horregatik da hain garrantzitsua berarekin lanean jardutea eta elkarteetara hurbiltzea.

▶ Beharrezkoa da heziketan inbertsio publiko gehiago egotea, balore laguntzaile eta solidarioetan hezi ahal izateko.

Alderdi Politikoei, Elizari, Sindikatuei dagokienez...

▶ Oro har, alderdi politikoei alderdikieriaz dihardute, norberaren interesak babesten, eta ez daude elkarteekiko irekita.

▶ Mugimendu herritar kritiko, burujabearen beldur dira, beraien ikuspuntuak eta ohiturak zalantzan jartzen dituzten horien beldur.

▶ Egitura antolatzaile hierarkizatuak eta zorrotzak dituzte. Erakunde "zurrunak" ohi dira.

▶ Alderdi politikoak hauteskundeetan besterik ez dira elkarteek gogoratzeko, haiei hauteskunde-probetxu ateratzeko.

Honaino... IEuskal Herrian burututako mintegie-
tan parte hartu dutenen iritzia eta ulertzeko moduak.

Partaide hauek beste elkarte askoren partaidetzarekin eztabaidaga-
rri eta hobegarri izan litezkeen ideiak jasotzeko lan egin zuten. Zure
elkarteak ezin izan zuen Mintegian parte hartu, baina orain ororen
gogoeta eta eztabaidarekin bat egiteko aukera duzue

Oroit-idazki honekin batera doakizuen galdera-sorta
laburrari erantzun **besterik ez duzue** egin behar
(edo zuen iritzia nahi duzuen luze idatzi) eta ondorengo helbidera
bidali:

EDEX

Particular de Indautxu, 9
48011 Bilbao

Tel. 94 442 57 84

Fax 94 441 75 12

e-mail: edex@edex.es



FUNDACION
ESPLAI

ACCION SOCIAL, EDUCACION Y TIEMPO LIBRE



con el apoyo de:

